



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

PRENTSARAKO OHARRA
2019/10/03

Bizkaiko Batzar Nagusiek OLBEren opera denporaldiko 380 sarrera banatu ditue Bizkaiko kultur erakundeen artean

Ana Otadui Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak sarrera pakete bat banatu dau gaur hainbat kultur erakundetako ordezkarien artean, bertako kideek OLBEren opera denporaldiaz gozetako aukerea euki deien. Inés Fernándezek (Bizkaiko Abesbatzen Federazioa), Jose Mari Oyarzabalek (Bizkaiko Dantzarien Biltzarra), Miriam Martínek (Euskal Antzezleen Batasuna), Saioa Bergadok (Euskadiko Musika Eskolen Alkartea) eta Irati Agorriak (Euskadiko Gazteriaren Kontsejua -EGK) 76na sarrera jaso ditue. Bizkaiko Batzarrak ordeztuz bertan egon dira, baita be, Begoña Gil (Euskal Sozialistak) eta Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia), Mahaiko lehenengo lehendakariordea eta bigarren idazkaria, hurrenez hurren.

Ekimenaren helburua Operaren Lagunen Bizkaiko Elkarteak (OLBE) egiten dauen beharrari laguntzea eta Lurraldeko antzezle, abesbatzetako kide, dantzari eta musika eskoletako ikasle gazteen artean musika genero hori sustatzea da.

Erakunde bakotzak zozketa baten bitartez banatuko ditu gaur jasotako sarrerak. Euskadiko Musika Eskolen Alkartea, alkartea osatzen daben zentroen artean banatuko ditu sarrerak, eta zentro bakotzak, aldi berean, bertako ikasleen artean zozketatuko ditu. Bizkaiko Abesbatzen Federazioak antzeko prozedura jarraitzen dau.

Euskal Antzezleen Batasunak emailaz bialtzen deutseez opera emonaldien egunak bere bazkide guztiei, eta antzezle bakotzak bat eskuratu ahal izango dau. Bizkaiko Dantzarien Biltzarrak, bere aldetik, iragarki bat jarriko dau bere webgunean, interesauta dagozan kideek gonbidapena jaso ahal izan daien.

Gazteriaren Euskal Kontsejuak EGK osatzen daben 57 alkarteen artean zozketatuko ditu sarrerak, eta, horrez gain, bere webgunearen eta sare sozialen bitartez ere zozketak antolatuko ditu. Kontsejuko talde tekniko eta Batzorde Iraunkorra zozketetatik kanpo geratzen dira.

Bizkaiko Batzar Nagusietako Lehendakariak, OLBEk 2019/2020 denporaldian programau dituan ikuskizunetarako 380 sarrera banatu ditu alkarte horreen artean. Programautako ikuskizunen artean honeek dagoz: Gaetano Donizettiren “Lucia de Lammermoor”, Giuseppe Verdiren “Der Fliegende holländer” edo Giacomo Pucciniren “La Fanciulla del West”. Ana Otadui gogoratuazo gura izan dau “Bizkaiko Batzar Nagusiak dirala OLBEgaz lankidetzan aritzen dan erakundeetako bat, urtero, Bilbon, aurton 68. edizinora helduko dan opera programazinoa egin ahal daiten. Eta sarrera horreek aitatutako lankidetzaren frutua dira, OLBEk egiten dauen beharrari laguntzeko eta gure inguruko kultur erakundeen artean opera sustatzeko helburu bikotxagaz”.



BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA
03/10/2019

Las Juntas Generales de Bizkaia reparten entre entidades culturales de Bizkaia 380 entradas de la temporada de ópera de la ABAO

Ana Otadui, Presidenta de las Juntas Generales de Bizkaia, ha entregado esta mañana a representantes de diversas entidades culturales un paquete de entradas para que sus integrantes puedan disfrutar de la temporada de ópera de la ABAO. Inés Fernández (Federación de Coros de Bizkaia), Jose Mari Oyarzabal (Bizkaiko Dantzarien Biltzarra), Miriam Martín (Unión de Actores Vascos), Saioa Bergado (Asociación de Escuelas de Música del País Vasco) e Irati Agorria (Consejo Vasco de la Juventud - EGK) han recibido, cada una, 76 entradas. En representación de las Juntas de Bizkaia, han acudido también Begoña Gil (Socialistas Vascos) y Emilio Lobato (Elkarrekin Bizkaia), vicepresidenta primera y secretario segundo de la Mesa, respectivamente.

El objetivo de esta iniciativa de la Cámara Foral es apoyar la labor de la Asociación Bilbaína de Amigos de la Ópera (ABAO), además de promocionar este género musical entre jóvenes actores y actrices, coralistas, dantzaris y alumnado de las escuelas de música del Territorio.

Cada entidad repartirá las entradas recibidas hoy a través de un sorteo. La Asociación de Escuelas de Música del País Vasco las entregará a los centros que la conforman que, a su vez, las rifan entre sus alumnas y alumnos. La Federación de Coros de Bizkaia sigue un procedimiento similar.

La Unión de Actores Vascos enviará por correo electrónico las fechas de las óperas disponibles a toda la afiliación y cada actor y actriz puede optar a una entrada. Por su parte, Bizkaiko Dantzarien Biltzarra publicará un anuncio en su página web para que las personas interesadas puedan recibir su invitación.

El Consejo Vasco de la Juventud sortea las entradas entre las 57 asociaciones que integran EGK, además de organizar rifas a través de su página web y de sus redes sociales. El equipo técnico y la Comisión Permanente del Consejo quedan excluidas de los sorteos.

La Presidenta de Juntas Generales de Bizkaia ha hecho entrega a estas asociaciones de un total de 380 entradas de los espectáculos que ha programado la ABAO en su temporada 2019/2020, con títulos como “Lucia de Lammermoor” de Gaetano Donizetti, “Der Fliegende holländer” de Giuseppe Verdi o “La Fanciulla del West” de Giacomo Puccini. Ana Otadui ha querido recordar que “las Juntas Generales de Bizkaia es una de las instituciones que colabora con la ABAO para hacer posible cada año en Bilbao una programación operística que este año alcanza su 68 edición. Y estas entradas son fruto de esa colaboración con el doble objetivo de apoyar la labor de la ABAO y promocionar la ópera entre las entidades culturales de nuestro entorno”.